

## Xedapen Orokorrak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

#### 1832

67/2005 DEKRETUA, apirilaren 5koa, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzeko dekretua aldatzen duena.

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, bere V. tituluan ezarri du Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen autonomia.

Legearen V. tituluko IV. kapituluak, kudeaketa autonomiaz diharduenak, honako alderdiak, besteak beste, araudi bidez garatuko direla aurreikusi du bere artikuluetan:

1.– Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen aurrekontuaren egituraren zehaztapena, baita kontularitza osatuko kudeaketa-eredua eta diruzaintzakoa ere.

2.– Euskal Eskola Publikoko ikastetxeen diru-sarreen aurrekontuan nola sartu soberan geratu diren baliabideak.

3.– Aurkeztu beharreko kudeaketa-kontuen ereduren zehaztapena, baita zenbatean behin aurkeztu behar diren ere.

Uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuak, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzeko denak, Lege hori garatu zuen, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen 1998ko uztailaren 28ko bilkuran, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta.

Ordurik hona nahikoa denbora igaro denez, bidezko da Dekretu horren lehen aldaketa planteatzea, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen kudeaketa ekonomikoa hobetu eta errazteko asmoz.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko apirilaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

#### 1832

DECRETO 67/2005, de 5 de abril, de modificación del Decreto por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca.

La Ley 1/1993 de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, establece en su Título V la autonomía de los centros docentes de la Escuela Pública Vasca.

La Ley prevé en el articulado de su Título V, Capítulo IV, referido a la autonomía de gestión de los centros docentes de la Escuela Pública Vasca, el desarrollo reglamentario, entre otros, de los siguientes aspectos:

1.– La determinación de la estructura del presupuesto de los centros docentes y su modelo de gestión contable integral y de tesorería.

2.– Los términos de inclusión en el presupuesto de ingresos de los centros docentes de los recursos que resulten excedentes.

3.– la determinación del modelo de cuentas de gestión que deberán rendirse y su periodicidad.

Por medio del Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca, se efectuó el desarrollo de la Ley, y fue aprobado por Consejo de Gobierno en su sesión de 28 de julio de 1998, a propuesta de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y Educación, Universidades e Investigación.

Habiendo transcurrido un periodo de tiempo significativo, procede plantear una primera modificación del citado Decreto con el fin de introducir mejoras y facilitar la gestión económica de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Educación, Universidades e Investigación, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de abril de 2005,

## XEDATU DUT:

**Lebenengo artikulua.**— Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautu duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuaren 6. artikulua aldatu egin da, eta honela geratuko da idatzita:

«Ikastetxearen aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orriaren egitura hauxe izango da:

1.— Aurreko ekitaldiko gerakina.

2.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik jasotako diru-sarrerak, ondoko xedea dutenak: funtzionamendu-gastuak, ekipamendua, obra txikiak, kudeaketa zuzeneko jantokiak, hezkuntza-esperientziak eta beste jarduera batzuk.

3.— Herri-administrazioetatik jasotako beste diru-sarrera batzuk, hala Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko beste Sail batzuetatik, nola Foru Diputazioetatik, Toki Erakundeetatik, Euskal Sektore Publikoko beste erakunde batzuetatik, Estatutik, Atzeritik edo funts publikoak euskarri dituzten ekimen publikoko Erakundeetatik.

4.— Ikastetxeek eskuratutako beste diru-sarrera batzuk, ondokoak direla-eta: zerbitzuak ematea, kudeaketa zuzeneko jantokietako kuotak, legatuak, dohaintzak eta beste emari batzuk, ondasunen salmenta, banku-interesak eta beste batzuk.

Diru-sarreraren egoera-orria adierazitako lau multzo horien arabera egituratuko da, eta diru-sarrerak banakatu egin beharko dira multzo bakoitzaren barruan, nean uneko indarreko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren sailkapen ekonomikoari jarraituz».

**Bigarren artikulua.**— Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautu duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuaren 8. artikulua honela geratuko da idatzita:

«Ondokoak jasoko dira gastuen egoera-orrian: ekitaldian egiteko aurreikusi diren ohiko funtzionamenduko gastuak eta inbertsioak, baldin eta programa zentralizatuetan sartuta ez badaude. Honako hauek ere sartu ahal izango dira: langileen prestakuntza- eta birziklatze-gastuak, eta Lanerako Prestakuntza eta Etengabeko Prestakuntza kontzeptuen peko ordainsariak, Dekretu honen 18.7. artikulua ezarri duenaren arabera.

Ikastetxearen aurrekontuko baliabideak ezin dira erabili legediaren arabera herri-administrazio lokal edo autonomikoak bete beharreko zerbitzu publiko edo betebeharrak estali edo ordaintzeko.

Gastuen egoera-orria egituratzeko, nean uneko indarreko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren sailkapen ekonomikoari jarraituko zaio».

**Hirugarren artikulua.**— Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzeko den uztailaren 28ko

## DISPONGO:

**Artículo primero.**— Se modifica el artículo 6 del Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca, que queda redactado como sigue:

«La estructura del estado de ingresos del presupuesto del centro será la siguiente:

1.— Remanente del ejercicio anterior.

2.— Ingresos recibidos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación para gastos de funcionamiento, equipamiento, obras menores, comedores de gestión directa, experiencias educativas y otras actividades.

3.— Otros ingresos de Administraciones Públicas, ya sea de otros Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma, de Diputaciones Forales, de Entidades Locales, de otras Entidades del Sector Público Vasco, del Estado, del Exterior o de Entidades de iniciativa pública sostenidas con fondos públicos.

4.— Otros ingresos obtenidos por los centros por prestación de servicios, cuotas de comedores de gestión directa, legados, donaciones y otras aportaciones, venta de bienes, intereses bancarios y otros.

El estado de ingresos se estructurará en los cuatro bloques indicados y dentro de cada uno de ellos se desglosarán los diferentes ingresos de acuerdo con la clasificación económica de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma vigente en cada momento».

**Artículo segundo.**— El artículo 8 del Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca queda redactado como sigue:

«El estado de gastos contendrá el conjunto de gastos de funcionamiento ordinario e inversiones no contemplados en programas centralizados, que se prevean contraer en el ejercicio. Podrán incluir gastos de formación y reciclaje del personal y honorarios en concepto de Formación Ocupacional y Formación Continua, de acuerdo con lo establecido en el artículo 17.8 del presente Decreto.

No podrán destinarse los recursos del presupuesto del centro a cubrir servicios públicos ni obligaciones que deban ser cumplidas por la Administración Pública Local o Autónoma, según la legislación vigente.

El estado de gastos se estructurará de acuerdo con la clasificación económica de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma vigente en cada momento».

**Artículo tercero.**— En el punto 3 del párrafo 4.º del artículo 13 del Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-finan-

196/1998 Dekretuko 13. artikulua 4. lerroaldeko 3. puntuan, «Ikas-ekinezko prestakuntzako praktiketarako laguntzak» esamoldearen orde, honako hau jarriko da: «Lantokiko Prestakuntza modulurako laguntzak».

**Laugarren artikulua.**— Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautu duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuaren 15. artikulua honela geratuko da idatzita:

«Ikastetxeko zuzendariak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta bere ikastetxerako, honakoak kontratatu ahalko ditu: konponketa-obra txikiak, artapen-obra eta mantentze-obra, obra horiek azkar burutu behar badira eta fakultatibo eskudun batek egindako proiektu teknikorik behar ez bada, hornikuntza-, aholkularitza- eta laguntza-, eta zerbitzu-kontratuak, guztiak ere, hartzen duten diru-zenbatekoarengatik, kontratu txikien kategorian sartzen badira, kontratazioaren alorrean indarrean dagoen legeriaren arabera.

**Bosgarren artikulua.**— Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautu duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuaren 21. artikuluko seigarren lerroaldea aldatu egin da, eta honela geratuko da idatzita:

«Ikastetxeek, baldin eta irakaskuntza-zerbitzuei dagozkien tasa edo prezio publikoak direla-eta diru-sarrerak biltzen badituzte (berezko gastuak egiteko ahalmenik ematen ez dutenak), sarrera-kontu baimendu bat eduki beharko dute, gainera, eta kontu horren saldoa aldiro-aldiro likidatuko zaio Hezkuntza Administrazioari. Kontu horretan mugimendu hartzekodunak bakarrik egin ahalko dira, non eta aipatu den funtsen likidazioa burutzeko mugimendu zordunak ez diren».

**Seigarren artikulua.**— Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautu duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuaren 23. artikuluari beste lerroalde bat gehitu zaio, eta honela dio:

«Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduz eguneratuko da eranskinen osaera, baita Ordenamendu Juridikoaren aldaketaren ondorioz egin beharreko beste edozein egokitzapen ere».

**Zazpigarren artikulua.**— Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautu duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuaren 24. artikulua honela geratuko da idatzita:

«Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran, ikastetxe bakoitzak hasierako aurrekontua bidaliko dio dagoen Lurralde Ordezkaritzari, behar bezala beteta eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartuta.

Sei hilabetez behin, eta, nolahi ere, abenduaren 31rako, kudeaketa-kontuak egingo dituzte ikastetxeek. Ordezkaritza Organo Gorenak onartu ondoren,

ciera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca se sustituye la expresión «Ayudas para prácticas de formación en alternancia» por «Ayudas para módulo de formación en centro de trabajo».

**Artículo cuarto.**— El artículo 15 del Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca, queda redactado como sigue:

«El Director / la Directora del centro podrá contratar, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma y para el propio centro aquellas obras de reparación menor, conservación o mantenimiento que demanden una pronta ejecución para las que no se precise proyecto técnico elaborado por facultativo/facultativa competente, y los contratos de suministros, de consultoría y asistencia y de servicios, que por su cuantía se incluyan, todos ellos, dentro de la categoría de contratos menores de acuerdo con la normativa vigente en materia de contratación.

**Artículo quinto.**— Se modifica el párrafo 6.º del artículo 21 del Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca, quedando como sigue:

«Aquellos centros que recauden ingresos en concepto de tasas o precios públicos por servicios de enseñanza, que no son susceptibles de generar capacidad de gasto propio, deberán contar además con una cuenta autorizada de ingresos, de forma que el saldo de dicha cuenta se liquidará periódicamente a la Administración Educativa. En la citada cuenta sólo podrán efectuarse movimientos acreedores, aparte de los deudores destinados a la citada liquidación de fondos».

**Artículo sexto.**— Al artículo 23 Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca, se le añade un nuevo párrafo que queda redactado como sigue:

«Se actualizará por Orden de la Consejera/o del Departamento de Educación, Universidades e Investigación la composición de los anexos y cualquier otra adaptación que se requiera por modificaciones en el Ordenamiento Jurídico».

**Artículo séptimo.**— El artículo 24 Decreto 196/1998, de 28 de julio, por el que se regula el régimen de gestión económico-financiera de los centros docentes que conforman la Escuela Pública Vasca, queda redactado como sigue:

«Al comienzo de cada ejercicio presupuestario, cada centro remitirá a la Delegación Territorial de Educación el presupuesto inicial, debidamente cumplimentado y aprobado por el Órgano Máximo de Representación.

Con periodicidad semestral y en todo caso a 31 de diciembre, los centros elaborarán las cuentas de gestión. Una vez aprobadas por el Órgano Máximo de Repre-

dagokion Lurralde Ordezkaritzari bidaliko zaizkio, horretarako ezarriko den epearen barruan.

Kudeaketa-kontuak bidaltzea ezinbesteko betekizuna izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagozkien ordainketa-aginduak eman ditzan».

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko apirilaren 5ean.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA ETA IKERKETA SAILA KULTURA SAILA

#### 1833

66/2005 DEKRETUA, apirilaren 5koa, Hezkuntza Berriketarako lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzen dituenak.

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako irakasleen Kidegoei buruzkoak, V. tituluan arautu du irakaskuntzako funtzio publikoa osatzen duten langileen hizkuntz normalizazioa. Zehazki, 49. artikulua xedatu du euskal hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko irakaskuntzako lanpostuek dagokien hizkuntz eskakizuna izango dutela. Eta 50. eta 51. artikuluen arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio hizkuntz eskakizunak eta horiek lanpostuei aplikatzeko irizpideak finkatzea, eta euskal hezkuntza-administrazioaren irakaskuntza-lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data esleitzea. Lege hori garatuz, zenbait dekretu eman ziren, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatu zituztenak, honako hauek aintzat hartuta: irakasle-postuak, ikuskaritzako lanpostuak eta Ikerketarako eta Irakaskuntzaren Laguntza Zerbitzuetako lanpostuak.

sentación se remitirán a la correspondiente Delegación Territorial de Educación, en el plazo que se determine al efecto.

El envío de las cuentas de gestión será requisito imprescindible para que puedan efectuarse los siguientes libramientos desde el Departamento de Educación, Universidades e Investigación».

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de abril de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,  
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE CULTURA

#### 1833

DECRETO 66/2005, de 5 de abril, por el que se crean y regulan los perfiles lingüísticos del personal laboral educativo no docente de Educación Especial.

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, regula en el Título V la normalización lingüística del personal que integra la función pública docente. Concretamente, el artículo 49 dispone que los puestos de trabajo docentes al servicio de la Administración educativa vasca tendrán asignado su correspondiente perfil lingüístico. Y, de acuerdo con los artículos 50 y 51, corresponde al Gobierno Vasco determinar los perfiles lingüísticos, los criterios para su aplicación a los distintos puestos de trabajo, la asignación del perfil lingüístico a cada uno de los puestos docentes de la Administración educativa vasca, así como su fecha de preceptividad. En desarrollo de la citada Ley se dictaron diferentes decretos por los que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes, de Inspección y de los servicios de Investigación y Apoyo a la Docencia.